

Astigarragako Norberto Almandoz Musika Eskolaren barne araudia

I. TALA – HEZKUNTZA KOMUNITATEAZ

1. artikulua. Musika Eskolako hezkuntza komunitatea osatuko dute honako hauek: Zuzendaritza Batzordeko kideek, irakasleek, ikasleek, administrazio-langileek eta ikasleen guraso eta legezko ordezkariak.

I. kapitulua – Musika Eskolako ikasleak: eskubideak eta betebeharrak

2. artikulua. Barne araudi honetan jasotzen diren eskubide eta beharrak 1995eko maiatzaren 5eko 732/1995 Errege Dekretuak ezartzen dituenak dira, gure Musika Eskolaren ezaugarrietara egokituta.

Ikasle guztiek oinarritzko eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, adinak eta burutzen ari diren ikasketek ezartzen dituzten ezberdintasunekin.

3. artikulua. Ikasleen eskubideak hauek dira:

- a) Musika Eskolaren ikasketa planean jasotako gutxieneko helburuak lortzea ahalbidetuko duen prestakuntza jasotzea.
- b) Beren kontzientzia askatasuna, erlijio sinesmenak, morala eta ideologia eta horien intimitatea errespetatzea.
- c) Beren segurtasun fisikoa, morala eta duintasuna errespetatzea eta inola ere ez pairatzea tratatu txar edo iraingarriak.
- d) Beren ordezkariak era demokratikoan hautatzea eta ordezkari horien bidez nahiz zuzenean eskolaren jardunaren inguruko beren eskaera eta kezak bideratu ahal izatea irakasleei, Eskola Kontseiluari, Zuzendaritzari nahiz gurasoei.
- e) Tutoretza saioak eskatzea, horretarako jarritako ordutegian.
- f) Eskola Kontseiluan landutako gaien berri izatea, beren ordezkarien bidez.
- g) Beren ordezkariekin, irakasleekin edo guraso elkartearekin bilerak egitea, betiere eskola jarduna oztopatu gabe.
- h) Beren errendimendua objektibotasun osoz ebaluatua izatea.
- i) Irakasleen eskutik ebaluazio sistema eta irizpideen berri jasotzea.
- j) Beren ikasketa prozesuaren ebaluazioari buruz beharrezko direla uste duten argibideak eskatzea. Argibideak jaso ondoren, azken emaitzen gainean desadostasunak baldin badituzte, emaitza hori berrikusteko eskatu ahal izango dute idatziz.
- k) Zentroaren instalazioak erabiltzea, betiere eskola eta eskolaz kanpoko jardueren plangintzak ezartzen dituen mugak kontuan hartuta eta pertsonen segurtasuna zaintzeko eta baliabideen iraupen eta erabilpen egokirako ematen diren jarraibideak betez.
- l) Parte hartzea eskolaren funtzionamenduan, bizitzan, eskola jardueran eta horien kudeaketan.
- m) Egindako arau-hausteen eta horiei dagozkien zigoren informazioa jasotzea.
- n) Eskola eta lanbide orientazioa jasotzea, pertsona, gizarte nahiz lanbide arloetako garapen osoa lortzeko, beren gaitasun, helburu edo interesen arabera.
- o) Beren eskola jardura burutzea segurtasun eta higiene baldintza egokietan.
- p) Adierazpen askatasuna, hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubideei kalterik egin gabe eta erakundeei zor zaien begirunea zainduz.
- q) Musika Eskolak matrikulatutako ikasleentzat egingo duen aseguru poliza edukitzea.
- r) Ikasleen elkarteetan elkartzea.
- s) Eskolak euskaraz jasotzea.

4. artikulua. Ikasleen betebeharrak hauek dira:

1. Ikasleen betebeharrak nagusia da probetxuz baliatzea gizarteak beren esku Musika Eskolan jarri duen postua. Hori dela eta, hezkuntzarako funtsezko eskubidearen ondorio da ikasteko betebeharra, bestela esan, ikasteko gogoia jartzea eta eskoletara joatea.

Betekizun nagusi hori betebeharrak hauetan gauzatzen da:

- a) Eskoletara joan eta ikasketa planean ezarritakoa lortzeko burutzen diren jardueretan parte hartzea eta saiartzea.
- b) Musika Eskolaren jarduerak burutzeko onartutako ordutegiak zorrotz betetzea.
- c) Ikasketa prozesua burutzeko irakasleek ematen dituzten jarraibideak betetzea eta irakasleekin begirunez jokatzeko.
- d) Ikaskideen ikasteko eskubidea errespetatzea.
- e) Aurreikusitako eskolara ez etortzeak aurrez jakinaraztea, bereziki taldeko saioetan edo antzekoetan.
- f) Adin txikikoak diren ikasleek ezingo dute Musika Eskola utzi eskola orduetan, horretarako baimena izan ezean.

2. Ikasleen betekizuna da Musika Eskolaren bizikidetzara arauak betetzea.

Betekizun hori betebeharrak hauetan gauzatzen da:

- a) Hezkuntza komunitateko kide guztien kontzientzia askatasuna, erlijio eta moral sinesmenak, duintasuna, integritatea eta intimitatea errespetatzea.
- b) Hezkuntza komunitateko inor ez diskriminatzea, sorleku, arraza, sexu edo bestelako pertsona edo gizarte ezaugarriengatik.
- c) Musika Eskolaren hezkuntza proiektua eta izaera errespetatzea, indarrean dagoen araubidearekin bat etorritik.
- d) Musika Eskolaren funtzionamendu eta bizitzan parte hartzea.
- e) Musika Eskolaren jarduera osagarrietan parte hartzeko konpromisoa hartzen duten ikasleek entsegu eta saio guztietara joan behar dute, ez bertaratzeko justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik.
- f) Ordezkaritza gisa hautatuak baldin badira, ordezkaritza horiek dituzten erantzukizunak beren gain hartzea.
- g) Musika Eskolako instalazio, ondasun, altzari eta musika-tresnak zaindu eta era egokian erabiltzea eta hezkuntza komunitateko gainerako kideen ondasunak errespetatzea.
- h) Garbitasun eta higieneko oinarriko arauak betetzea.
- i) Musika Eskolako sartu-irtenetan eta bertan daudenean era egokian portatzea.

Diziplina araubidea

5. artikulua. Zentroaren arauen aurkako portaerak. —

Portaera horiek sailkatuko dira arau hauste arin, larri edo oso larritan.

1. Arau-hauste arintzat hartuko dira honako hauek:

- a) Justifikatu gabe eskola edo saioetara berandu iristea.
- b) Eskoletara ez joatea, justifikatu gabe.
- c) Zabarkeriaz jokatzeko instalazio eta materialei edo hezkuntza komunitateko beste kideen ondasun eta jabetzei kalte arinak eragitea.
- d) Zentroaren barruan behar besteko ordena ez edukitzea.
- e) Baimendu gabeko espazioetara baimenik gabe sartzea edo helburu desegokietarako erabiltzea.
- f) Irakasleek arau hauste arintzat jotzen dituzten portaerak, hala nola, diziplina arau hausteak, eskolatan arretarik ez jartzea eta antzekoak.

- g) Ikaskideekiko harremanetan errespeturik ez izatea, arau hauste larriak ez izanik ere zuzendu beharrekoa denean.
- h) Eskolatik joatea, irakaslearen baimenik gabe.
- i) Diziplina arau hausteak, irainak eta eraso fisikoak egitea, larritzat har ez daitezkeenak.
- j) Aurreko paragrafoetan zehaztu gabeko arau hausteak, dagokion organoak arau hauste arintzat jotzen dituenak.

2. Arau-hauste larritzat hartuko dira honako hauek:

- a) Hiruhileko berean behin eta berriz arau hauste arinak egitea (3-5).
- b) Hezkuntza komunitateko beste kideen aurka diziplina arau-hauste, irain edo eraso larriak egitea.
- c) Hezkuntza komunitateko edozein kideren aurka eraso fisiko edo moralak egitea edo IV tituluko 34. artikuluko 2.f) ataleko zerrendan agertzen diren arrazoiengatik era larrian diskriminatzea.
- d) Zentroaren nahiz hezkuntza komunitateko edozein kideren ondasunak ebastea.
- e) Musika Eskolaren dokumentuak faltsutzea.
- f) Musika Eskolaren lokal, altzari, material edo dokumentuei edo hezkuntza komunitateko beste kideen ondasunei kalte larriak eragitea, erabilera okerragatik.
- g) Musika Eskolaren jarduna era larrian oztokatzen duten jokaera justifikatu gabek burutzea.
- h) Barne araudi honetan ezarritako arauen aurka aritzea edo ez betetzea, zentrotik kanpoko joan etorrietan.
- i) Eskola errendimenduan interesik eza nabarmena izatea.
- k) Ezarritako zigorrak ez betetzea.
- l) Aurreko paragrafoetan zehaztu gabeko arau hausteak, dagokion organoak arau hauste larritzat jotzen dituenak.

3) Arau-hauste oso larritzat hartuko dira honako hauek:

- a) Ikasturte berean hiru arau-hauste larri egitea.
- b) Hezkuntza komunitateko beste kideen aurka diziplina arau-hauste, irain edo eraso oso larriak egitea.
- c) Arau-hauste larriak, taldean eginak badira edota nahita publizitatea eman bazaie.
- d) Hezkuntza komunitateko beste kideen osasun edo integritatearen aurkako ekintzak sustatzea behin eta berriz.
- e) Musika Eskolaren eremuan drogak banatu, saldu, erosi edo kontsumitzea.
- f) Musika Eskolaren dokumentuak ebastea.
- g) Aurreko paragrafoetan zehaztu gabeko arau hausteak, dagokion organoak arau hauste oso larritzat jotzen dituenak.

6. Artikulua. Zentroaren arauen aurkako portaerak zuzentzeko neurriak, beren sailkapenaren arabera:

1. Arau-hausteak arinak badira:

- a) Ohartarazpen pribatua.
- b) Ohartarazpen idatzia. Ikaslea adin txikikoa denean ohartarazpena gurasoei helaraziko zaie.
- c) Eragindako kaltea konpontzera bideratutako lanak egitea (horrelako kalterik egin bada) eskola orduz kanpo.
- d) Zentroaren jarduna hobetzeko lanak egitea (kontzertuak, entzunaldiak...).
- e) Ikaslea ikasgelatik kanporatzea (ikasketa buruaren aurrera agertu beharko du).

2. Arau-hausteak larriak badira:

- a) Ohartarazpen idatzia, aldi batez zentrotik edo eskola jakin batzuetatik kanporatzeko. Ohartarazpen hori ikaslearen espedientearen jasoko da, eskoletara justifikatu gabe behin eta berriz joan ez bada. Espedienteari irakaslearen eta zentroko zuzendariaren txosten zehatza erantsiko zaio.
- b) Eragindako kalte materialak konpontzera bideratutako lanak egitea (gisa horretako kalterik egin bada) edo zentroaren jarduna hobetzeko lanak egitea. Lan horiek egingo dira eskola orduetatik kanpo.
- c) Kalteak nahita eragin badira, kalteak egin dituenaren betebeharra izango da kaltetu dituen materialak oso-osorik konpontzea eta ondorioek eragindako kostuak bere gain hartzea era subsidiarioan.
- d) Ikaslea taldez edo ikasgelaz aldatzea.
- e) Eskola jakin batzuetara joateko eskubidea etetea, gutxienez bost egunez eta gehienez bi astez. Epealdi horretan ikasleak egin beharko ditu jartzen zaizkion lanak, ikas prozesua ez eteteko.

2. Arau-hausteak oso larriak badira:

- a) Musika Eskolara bertaratzeko eskubidea bertan behera uztea, gutxienez hiru eskola egun eta gehienez hilabete baino gutxiago. Etenaldiak irauten duen epearen barruan ikasleak jartzen zaizkion lanak egin beharko ditu, ikas prozesuak etenaldirik izan ez dezan.
- b) Dagokion irakasgaiaren etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzea, ezarritako gehienezko asistentzia hutsegiteen kopurua gainditzen baldin bada. Kasu horietan Koordinazio Pedagokikoko Batzordearen egitekoa izango da ordezkari ebaluazio prozedura zehaztea. Halaber, irakasgaiaren batean etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzen duten ikasleek hurrengo ikasturterako plaza gordetzeko eskubidea ere galdu egingo dute eta, beraz, onartzeko prozedurak ezartzen duena bete beharko dute Musika Eskolan ikasten jarraitu nahi baldin badute.
- c) Jarduera osagarri edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea galtzea behin betiko edo zentrotik behin betiko kanporatzea.

7. artikulua. Zentroaren arauen aurkako portaerak zuzentzeko neurriak erabakitzearen eskumena.

- a) Arau-hauste arinak dagokion irakasleak zuzenduko ditu eta, beharrezko irizten badiu zuzendari pedagogikoarengana edo klaustroarengana jo ahal izango du.
- b) Arau-hauste larriak Zuzendaritza Batzordeak zigortuko ditu. Halaber, arau-haustea eta erabakitako neurriak guraso edo tutoreei jakinaraziko zaizkie idatziz. Hori guztia espedientearen jasoko da.
- c) Arau-hauste oso larriak Eskola Kontseiluak zigortuko ditu. Halaber, arau-haustea eta erabakitako neurriak guraso edo tutoreei jakinaraziko zaizkie idatziz. Hori guztia espedientearen jasoko da. Espedienteak eragindako interesdunak 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Epe hori igaro ondoren, Eskola Kontseiluak dagokion erabakia hartuko du.

8. artikulua. Zigor prozedura:

- a) Prozedura hau erabiliko da arau-hausteak larriak eta oso larriak direnean.
- b) Arau-hauste larriak eta oso larriak ezingo dira zuzendu aurretik dagokion espedientearen bideratu gabe. Espediente hori zentroko zuzendariak bideratuko du (bere ekimenez nahiz eskumena duen organoaren eskariz), beharrezko informazioa jaso ondoren.
- c) Espedientearen zuzendari pedagogikoak bideratuko du. Espedientearen berri berehala emango zaio ikasleari (edo adin txikikoa baldin bada bere guraso, tutore edo legezko erantzuleei).
- d) Ikasleak (edo bere guraso edo legezko ordezkariak) espedientearen bideratu duen pertsona errekusatu ahal izango du zuzendariaren aurrean, bere portaera edo adierazpenetatik eratorzen bada objektibitate eza espedientearen bideratzeko erantzule.
- e) Salbuespen kasuetan, prozedurari ekiten zaionean nahiz bideratzen ari den edozein unetan, zuzendariak (bere erabakiz edo espedientearen bideratu duen pertsonaren proposamenaren bidez) erabaki ahal izango du behin-behineko neurriak ezartzea, hala nola, zentrori bertaratzeko edo

eskola edo jarduera zehatz batzuetan parte hartzeko eskubidea aldi batez bertan behera uztea (gehienez ere hiru egunez). Horrelako neurriren bat hartzen bada, dagokion organoari jakinaraziko zaio eta honek ahalmena izango du edozein unetan neurri hori indarrik gabe uzteko.

f) Espedientea erabakiko da gehienez ere hamar eguneko epearen barruan, zuzendu beharreko portaera (betiere, barne araudi honen argitara zuzendu beharrekoa den portaera) gertatu edo ezagutu denetik kontaktzen hasita.

g) Espedienteari hasiera eman ondoren, ikasleari entzunaldirako eskubidea emango zaio (eta adin txikikoa baldin bada bere guraso edo legezko ordezkariari). Horrekin batera, jakinaraziko zaizkio egozten zaizkion arau-hausteak eta Eskola Kontseiluari proposatu zaizkion zuzenketa neurriak. Espedientea bideratzeko epea izango da, gehienez ere, zazpi eguneko.

h) Zigor Batzordeak erabakia hartzeko kontuan hartuko ditu ikaslearen pertsona, familia nahiz gizarte arloko ezaugarri eta baldintzak. Horren helburua da arau-hausteari dagozkion zigorrak graduatzea.

i) Dagokion organoak egiaztatuko du ezarritako neurri zuzentzaileak bete diren ala ez.

II. kapitulua – Ikasleen guraso edo legezko ordezkariari buruz. Eskubideak eta betebeharrak.

9. artikulua. Eskubideak.

a) Guraso elkarteen bidez elkartzea.

b) Zentroaren bizitzan parte hartzea, indarrean dagoen araubidearen argitara.

c) Seme-alaba edo tutoredunaren errendimendu akademikoari buruzko informazioa eta orientazioa jasotzea.

d) Seme-alaba edo tutoredunaren justifikatu gabeko eskola huts egiteei buruzko informazioa jasotzea.

e) Elkarrekin konpondu behar diren portaera desegokiei buruzko informazioa jasotzea.

f) Matrikulazio epeei buruzko informazioa jasotzea, garaiz.

g) Dagokion irakaslearekin elkartzea, horretarako ezartzen den ordutegian eta aurrez hitzordua eskatuta, seme-alaba edo tutoredunaren eskola jardunaren gaineko kexa edo oharrak egiteko. Behar bezalako arreta jasotzen ez badute zentroko zuzendariarengana jo ahal izango dute.

h) Eskola Kontseiluan dituzten ordezkarien bidez proposamenak egitea.

10. artikulua. Betebeharrak.

a) Errespetuz eta begirunez tratatzea irakasleak, musika eskolako langile ez irakasleak eta ikasleak.

b) Musika eskolako Zuzendaritzak, irakasleek nahiz langileek egiten dizkieten bilera-deialdietara eta bestelako hitzorduetara bertaratzea.

c) Irakasleen lana ez oztopatzea eta instalazioetara sartzeko eta irteteko eta bertan egoteko arauak betetzea.

d) Hezkuntza proiektua eta zentroa antolatzeko onartutako arauak errespetatzea.

e) Ordezkari gisa hautatzen badituzte, ordezkari izateak berekin dakartzan ardurak bere gain hartzea.

III. kapitulua – Administrazio eta zerbitzuetako langileei buruz.

11. artikulua. Eskubideak. —

a) Hezkuntza komunitateko gainerako pertsonen eskutik bidezko eta errespetuzko tratua jasotzea.

b) Zentroaren bizitzan parte hartzea, indarrean dagoen araubidearen argitara.

c) Zentroko Zuzendaritzari aurkeztea egoki irizten dituzten ekimen, proposamen eta erreklamazioak.

d) Eskola Kontseiluan ordezkari bat edukitzea eta beren proposamenak ordezkari horren bidez aurkeztea.

e) Eskola Kontseiluan aztertu eta erabakitako gaien berri jasotzea beren ordezkariaren eskutik.

12. artikulua. Betebeharrak. —

- a) Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzen laguntzea.
- b) Zentroa mantentzeko lanetan laguntzea, beren eginkizunen esparruan.
- c) Irakasleei laguntzea, bere lanpostuari dagokion eginkizunetan, betiere, irakasleen eskariei erantzunez.
- d) Ordena zaintzen parte hartzea, barne-araudiak ezartzen dituen jarraibideekin bat etorriz.
- e) Hezkuntza proiektua eta zentroaren jarduna arautzen duten arauak errespetatzea.
- f) Baimenak eta ez laneratzeak ahalik eta aurrerapen handienaz jakinaraztea, ahal den neurrian.
- g) Hezkuntza komunitateko gainerako kideak eta zentrori informazio eske datozen pertsonak era egokian eta errespetuz tratatzea.
- h) Jarduera akademikoa ahalik eta ondoen gauzatzeko goragoko organoek beren eginkizunen harira ematen dituzten jarraibideak betetzea.
- i) Ordezkarik gisa hautatzen badituzte, ordezkarik izateak berekin dakartzan ardurak bere gain hartzea.

IV. kapitulua – Irakasleei buruz.

13. artikulua. Eskubideak. —

- a) Katedra eta irakaskuntza eskubidea, indarrean dauden legeak betez eta hezkuntza proiektua eta programazioak errespetatuz.
- b) Elkartzeko eskubidea, betiere, ohiko eskola jarduna oztopatu gabe.
- c) Egoki eta errespetuz tratatua izatea, lankide, ikasle nahiz hezkuntza komunitateko gainerako kideen aldetik.
- d) Zentroaren bizitzan parte hartzea, indarrean dagoen araubidearen argitara.
- e) Zentroari nahiz irakasleei eragiten dieten gaietarako buruzko informazioa jasotzea, dagokionaren eskutik.
- f) Ekimenak, iradokizunak eta aukerak proposatzea.
- g) Zentroaren materiala erabiltzea irakasle lana burutzeko.
- h) Eskola Kontseiluan dituzten ordezkariek hautatzea eta ordezkarik horien bidez aurkeztea egoki ikusten dituzten proposamenak.
- i) Eskola Kontseiluan aztertu eta erabakitako gaien berri izatea, beren ordezkarikien eskutik.
- j) Zentroan irakasten dituzten gaien garapen pedagogikoa helburu duten prestakuntza-ikastaroetara joatea. Zuzendaritza Batzordearen onospena jaso behar du, ikastaroaren ordutegia zentroan duen eskolen ordutegiarekin bateragarria ez baldin bada.
- k) Ikasketa buruari eskola edo saio batzuk aldatzeko eskatzea, kontzertu, ikastaro, hitzaldi eta, oro har, interesdunaren prestakuntza eta garapen profesionala hobetzeko ekintzetan parte hartzeko, betiere, zentroko ikasleen eta musika eskolaren izen onaren onurarako baldin bada. Aldaketa horiek egiteko baimena ikasketa-buruak eman ahal izango du, aurrez eragindako ikasleak jakinaren gainean jarri eta ontzat ematen badute eta zentroaren ohiko jarduna oztopatzen ez bada.

14. artikulua. Betebeharrak. —

- a) Errespetuz eta begirunez tratatzea gurasoak, ikasleak eta musika eskolako langile ez irakasleak.
- b) Dagozkion eskolak era egokian eta puntualtasunez ematea.
- c) Ikasgelan ordena zaindu eta mantentzea eta eskura jartzen zaion materiala egoerarik onenean edukitzea (erabiltzearen ondorio den higadura kontuan hartuta). Idazkaritzari edo ikasketa-buruari jakinaraziko zaizkio materialetan gertatzen diren matxura eta gorabeherak.
- d) Ikasleen eskubideak errespetatzea, zorrotz zaintzea beren integritate fisiko nahiz psikikoa eta ikasleengan ohitura egokiak sortzea (ordena, lana eta konfiantza) beren prestakuntza osoa izatea lortzeko.
- e) Guraso eta ikasleen kontsultei erantzutea, horretarako ezartzen den ordutegian, indarrean dauden arauen arabera.

- f) Zuzendariari edo ikasketa-buruari jakinaraztea ikasleekin zentrotik kanpora egin nahi diren jarduerak, onar ditzan, horrela baldin badagokio.
- g) Ikaslearen bilakaera akademikoari buruzko argibideak ematea ikasleei eta guraso nahiz legezko ordezkariari.
- h) Ikasleen asistentzia egiaztatzea (eskoletan nahiz bestelako jardueratan) eta justifikatu gabekoen berri ematea.
- i) Ikasleak arau-hausteren bat egiten duenean, dagokion zigorra ezartzea, barne-araudi honetan finkatutakoaren argitara. Halaber, arau-haustearen berri ematea gurasoei edo legezko ordezkariari (eta horrela baldin badagokio ikasleari), ikasketa-buruari eta Zuzendariari.
- j) Klaustroaren bileretara eta irakaskuntza jarduerarekin zerikusia duten bestelako bileretara bertaratzea. Bilera horietara ez bertaratzea edo garaiz ez iristea kontrolatuko du ikasketa-buruak. Ikasketa-buruak horien berri Zuzendaritzari emango dio, egoki irizten dituen diziplina neurriak har ditzan.
- k) Ordezkari gisa hautatzen badituzte, ordezkari izateak berekin dakartzan ardurak bere gain hartzea.
- l) Programa gauzatzea eta programa egokitzea ikasgela edo ikasle bakoitzaren ezaugarrietara.
- m) Ikaslea etengabe ebaluatzea, zentroak ezartzen dituen irizpideen argitara, honakoak kontuan hartuta: ikaslearen jarduna eskoletan, eskuratutako ezagupenak neurtzeko egiten diren askotariko frogak, eskuratutako ezagupenen ulermena eta aplikazioa.
- n) Zuzendariak edo ikasketa-buruak emandako ardurak hartu eta betetzea.
- o) Lan-ordu ez lektiboak erabiltzea ematen dituen irakasgaiak prestatu eta lantzeko edota musika eskolaren garapenari laguntzeko.
- p) Ikasleek eskuratutako kalifikazio orokorrak aurkeztea, urtero.

Diziplina arauak

15. artikulua. Zentro honek bere egiten du, oso-osorik, “Euskadiko irakaskuntza pribatuaren” lan hitzarmenean onartu eta jasotako diziplina araubidea.

V. kapitulua. Hezkuntza komunitate osoari dagokion bizikidetzaren arauak.

- a) Hezkuntza proiektua eta zentroa antolatzeko ezarritako arauak errespetatzea.
- b) Zentroaren espazioak era egokian erabiltzea eta helburu duten erabilera zehatza errespetatzea.
- c) Ez egotea soilik irakasleentzat gordetako eremuetan, eskaileretan edo pasabideetan.
- d) Ez erretzea, berariaz debekatutako lekuetan.
- e) Zentroan kartel edo iragarkiren bat jarri nahi bada, Zuzendaritzaren onarpena jaso eta zigilua jarri beharko zaio.
- f) Lan arloko gaiei buruzko kartelak (deialdiak, sindikatuen oharak...) jarriko dira soilik horretarako ezarritako eremuan.
- g) Bizikidetzaren arauak hausteagatik ezarri beharreko neurri zuzentzaileek heztea eta berreskuratzea izango dute helburu, beste ikasleen eskubideak errespetatzea bermatuko dute eta sustatuko dute hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harremanak hobetzea.

Nolanahi ere den, arau-hausteen ondorioz hartzen diren neurri zuzentzaileetan ezingo dira integritate fisikoaren edo pertsonaren duintasunaren aurka doazen neurriak hartu.

II. ATALA – IKASKETA PLANAK

Musika Eskolak eskaintzen dituen ikasketak honako maila eta ikasketa-planaren arabera antolatuko dira:

I. MAILA

Musika hezkuntza goiztiarra

Tailerra 0-3 urte (haurrak pertsona heldu batekin joan behar du)

Musika eta mugimendu tailerra

1. ikasturtea: 4 urtekoen tailerra (ikasleak 4 urte bete behar ditu ikasturtea hasitako urtean)
2. ikasturtea: 5 urtekoen tailerra (ikasleak 5 urte bete behar ditu ikasturtea hasitako urtean)
3. ikasturtea: 6 urtekoen tailerra (ikasleak 6 urte bete behar ditu ikasturtea hasitako urtean)

II. MAILA

Musika-tresna nagusia

1 eta 2. ikasturtea: musika-tresnaren 1 eta 2. moduluak, musika-hizkuntzaren 2 modulu eta 2. ikasturtean abesbatza.

3-6. ikasturteak: musika-tresnaren 3-6 bitarteko moduluak, musika-hizkuntzaren 3-6 bitarteko moduluak eta 3-4* talde ikasturteak.

* ikaslea lehenago edo beranduago hasiko da taldean, musika-tresnarekin duen mailaren arabera. Tresnen talde batean hasi arte abesbatzan jarraitu beharko du.

- II. mailako musika-tresnaren moduluak amaitzen baditu ez ditu kamerako 4 ikasturteak (edo falta zaizkionak) amaitu behar maila gainditzeko.
- Kamerako 4 ikasturteak amaitu baina musika-tresnako moduluak amaitu ez baditu, ikasleak aukeratu egin beharko du kamera taldean jarraitu edo musika-tresna horrekin tresnen talde batean hasi.
- Bigarren musika-tresna bat ikasten ari baldin bada, musika-tresna bakoitzarekin bi kamera ikasturte egin behar ditu, betiere musika-tresna bakoitzarekin ikasturte bakoitzean kamera edo taldean ari bada.
- Bi musika-tresna ikasten ari den ikasleak, bigarren musika-tresnaren kamera taldean hasi ez bada, lehen musika-tresnaren kamera taldean jarraitu beharko du, betiere kamera talde horretan lau urte baino gutxiago baldin badaramatza.

Ikasle guztiek hartu behar dute parte Musika Eskolako kamera taldean edo bestelako taldeetan. Ikasle batek talde horietan aritzeko behar besteko mailarik ez baldin badu, abesbatzan parte hartu behar du.

Horiez gain, abesbatzan eta musika eskolako musika-tresnen bestelako taldeetan parte hartu ahal izango da, doan.

Bigarren musika-tresna

1 eta 2. ikasturtea: musika-tresnaren 1 eta 2. moduluak eta kamera edo taldea, gaitasuna baduela ikusiz gero.

3-6 bitarteko ikasturteak: musika-tresnaren 3-6 bitarteko moduluak eta kamera musikako 2 * ikasturte.

* gehi lehen musika-tresnari dagozkion biak; hortik aurrera derrigorrezkoa da kamera musika edo tresnen taldea, musika-tresna bakoitzeko. Bi ikasturte horiek zenbatzen dira, hasieratik, musika-tresna horrekin.

Horiez gain, abesbatzan eta musika eskolako musika-tresnen bestelako taldeetan parte hartu ahal izango da, doan.

III. MAILA

Musika-tresna

Ikasturte bakoitzean: musika-tresna eta kamera taldea edo tresnen taldea.
Aukeran: bestelako edozein talde.

IV. MAILA (soilik musika taldea)

Ikasturte bakoitzean: kamera taldea edo tresnen taldea.

III. TALA – IKASLEAK ONARTZEKO ARAUAK

ESKAINITAKO PLAZA KOPURUAK

Irakasleen klaustroak urtero aurkeztuko dio Zuzendaritza Batzordeari musika-tresna bakoitzean eskain daitekeen plaza kopuruaren proposamena, alderdi hauek kontuan hartuta:

- Musika-tresna bakoitzean onar daitekeen gehieneko ikasle kopurua: kopuru hori izango da irakasle bakoitzak, bere lanaldiaren arabera, har ditzakeen ikasleen arabera, izan diren bajak aintzat hartuta.
- Musika-tresnen matrikulazioetan orekari eusteko ahalegina egingo da, musika eskolan dauden taldeek (eta sor daitezkeen taldeek) jarraitzeko behar dituzten ikasleak izan ditzaten.

Proposamen hori aztertu ondoren, Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du Musika Eskolak eskainiko duen plaza kopurua.

Aurrekoari kalterik egin gabe, Zuzendaritza Batzordeak eskumena izango du plaza kopurua handitzeko, betiere matrikulazio-epea amaitu eta eskaria eskaintza baino handiagoa baldin bada eta beharrezkoa eta bideragarria dela ikusten bada.

BAJAK, MATRIKULAZIOA ETA IKASLEAK ONARTZEA

Maiatzaren amaieran epea zabalduko da hurrengo ikasturterako ikasleen bajak bideratzeko. Ikasle batek epe horretan baja ematen ez badu, bere plaza era automatikoan berrituko da, musika eskolako ikasketekin jarraitu egingo duela iritzita.

Epe hori amaitu ondoren zabalduko da matrikulazio-epea (ekainaren hasieran): ikasle berriak, musika-tresnak eta hautazko ikasgaiak ikasteko matrikula berriak.

Tailerreko eta musika-hezkuntzako ikasleen onarpen-prozesuan aplikatuko dira Eusko Jaurlaritzak talde horiek sortzeko ezartzen dituen irizpideak eta kontuan hartuko dira Musika Eskolak talde gehiago sortzeko dituen aukerak.

Musika-tresnak ikasteko ikasle berriak onartzeko, prozedura honi jarraituko zaio:

- Matrikulazio-epean ikasleak hautatu duen musika-tresna ikasteko eskaera egingo du. Eskaera horretan beste bi musika-tresna ikasteko eskaera ere egin ahal izango du (lehendabizikoan plazarik gabe geratuz gero kontuan hartzeko).
- Hirugarren aukera (musika-tresnarena) egin beharko da Musika Eskolak zehazten duen musika-tresnaren batean.
- Matrikulazio-epea amaitu eta musika-tresna bakoitzean eskainiko den plaza kopurua finkatu ondoren, hautagai edo eskatzaileei plazak esleituko zaizkie (ekainaren 15-20 artean), honako alderdi hauek kontuan hartuta:
 1. Lehentasuna izango dute itxaron-zerrendetan dauden ikasleek.
 2. Lehentasuna izango dute Musika Eskolako ikasle diren eta musika-tresnarekin derrigorrez hasi behar duten ikasleek.
 3. Plazak esleituko dira matrikulazio-hurrenkera kontuan hartuta.
 4. Onartuen zerrendan sartuko dira, ordezkotako gisa, onartu ez diren ikasleak, gordetako 2 edo 3. plazetan uko egiteak gertatuko balira ordezkotako zerrendara jotzeko.
 5. Ikaslea musika-tresna batean onartzen denean, egin dituen beste aukeretan ordezkotako gisa geratuko da.
 6. Onartutako ikasleek plaza galduko dute soilik uko egiten badiote.
- Ikasturteko azken astean emango dira argitara Musika Eskolako iragarkien taulan plazak nola geratu diren.

- Plazarik gabe geratu delako onartua izan ez den eskatzaileak Musika Eskolari adierazi beharko dio, horretarako ezartzen den epean, bere bigarren aukeran (edo hirugarrenean, bigarrenean ere plazarik ez balego) matrikulatu nahi duen edota hurrengo ikasturterako itxaron zerrendan geratu nahi duen.

Ikasle bat ez bada onartzen egindako hiru aukeratan, eskubidea izango du beste aukera batzuetan izena emateko. Kasu horretan matrikularen antzintasunaren eskubidea galduko du.